

LAUGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C2 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

[A eredua]

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **3h 10 min** dituzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dira. • Hiru irakurgai eta guztira 25 galdera. Balio berekoak (0,8 puntu). Gainditzeko, 13 erantzun behar dira zuzen. Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko. • Testuen luzera guztira: 1.800 hitz gehienez. 	60-70 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Bi ariketa ditu. Biak balio berekoak (15 puntu). Biak egin behar dira eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira. 	120 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketak** horretarako eman zaizkizun **aparteko orrietan**.
- Azterketa-**koaderno hau** ez da jasoko, **zuzen da**.

1. ariketa

Identifikatu testua osatzeko falta diren testu zatiak.

Markatu testuko hutsuneak (1, 2, 3...) betetzeko zein diren testu zatirik egokienak (A, B, C...).

Aukeran ematen zaizkizun testu zatitako bat sobera dago.

SOZIALDEMOKRAZIAREN ETORKIZUNA

Orain dela hogei urte, arrakasta handia izan zuen liburua plazaratu zuen Norberto Bobbio pentsalari italiarrak. *Eskuina eta ezker*a zuen izena, eta berriki berrargitaratu da gaztelaniaz (Taurus, Madril, 2015). Eskuinak beti ukatu izan du eskuinaren eta ezkeraren arteko diferentzia. Gaur egun, bere burua erradikaltzat daukan beste alderdi berri batek ere zalantzan jarri du. Kontu zaharrak omen dira horiek.

Ez zen hori Bobbioren iritzia. Berdintasunaren aldeko jarrera da ezkertiarren ezaugarri bereizgarria; eskuindarra, berriz, desberdintasunak desegitea ezinezkoa delakoan dago. Ezkertiarrek ezberdintasunaren aurkako borrokari ematen dio lehentasuna bere jokabide moralean eta ekintza politikoan. Desberdintasun sozialak ezabatu egin daitezke. Eskuindarrek, ostera, naturalak direla diote; kenezinak, beraz.

Norberto Bobbio, familia burges batean jaioa, justizia eta giza eskubideen alde borrokatu zen beti. Zorroztasun kritikoa, zalantza metodikoa, moderazioa, tolerantzia, besteren ideiekiko errespetua izan ziren haren bertuteak. Demokrazia eta sozialismoa izan zituen helburu nagusiak; askatasuna eta justizia, balio gorenak. **1**

XX. mende hasieran, jende askori ezinezkoa iruditzen zitzaion askatasunak eta berdintasunak bat egitea. Sozialistek, aberatsen eta pobreen arteko desberdintasun sakonak ikusita, arbuiatu egin zuten liberalismo klasikoa. Haien ustez, ohiko liberalismoak legearen aurreko berdintasuna defenditzen zuen; baina klaseen arteko desberdintasun sozialak toleratzen zituen. **2**

Bobbiok irauli egin zuen ikuspegi hori. **3** «Dualista porrokatua» izanagatik, bateraezinak ziruditen aurkariak uztartzen ahalegindu zen: justizia eta askatasuna, sozialismoa eta liberalismoa. Sozialismo liberalaren bidea hartu zuen, hortaz. Ezkertiarrek zeukan bere burua, sozialista liberalizat, alegia.

Bobbio izan zen instituzio liberalen aldekorik sutsuenetakoa ezkerreko jendearen artean. Helburu

sozialistak demokrazia liberalaren barruan iritsi zitezkeela esan zuen beti. **4** Ez mutur puntako liberalismorik, ez sozialismo hutsa soilik, hortaz.

«Komunismo historikoak porrot egin du, baina hark botatako erronkak iraun egiten du. Ezkerren eta eskuinaren arteko bereizketak iraun egiten du», idatzi zuen. Merkatuak bakarrik ezin ditu injustiziak konpondu. **5** Ezkerren helburuak bizirik daude oraindik: askatasunaren, berdintasunaren eta senidetasunaren printzipioek ez dute gaurkotatzen galdu. Arrazoizkoa da desberdinak berdinagoak izan daitezen ahalegintzea.

Bobbio integrazioaren eta kontsentsuaren bila ibili zen, fanatismo oro arbuiatuz. Muturretatik ihesi, esperantzen eta etsipenaren artean bizi izan zen. Modernitatearen akats eta ahuleziak salatu zituen. Izaeraz pesimista zen eta ez zeukan gizakiengan sinesmen handiegirik. Nahiz eta demokrata konbentzitu izan, jakitun zegoen demokraziaren inperfekzioez. **6**

Tony Judt zenak *Zerbait doa gaizki* lanean zioenez, sozialdemokrazia izan da egungo politika europarraren prosa, herritar gehienak bat baitatoz haren oinarriko ideiekin. Berak eraiki du ongizatezko Estatua; horregatik, Europak sozialdemokraziaren antz handia izan du, harik eta Merkel eta haren lagunak nagusitu diren arte. Sozialdemokraziaren «alferrikako sakrifizioaz» mintzatu da Michel Feher filosofoa. Merkelen preso segitzen badu, ez dauka zer eginik. Premiazkoa da aldaketa sakon bat.

7 Are gutxiago, ezkerak. 1990az geroztik aplikatu diren politika neoliberalak erabat kaltegarriak izan dira. Europar Batzordeak gehiengoaren nahiaren kontrako neurriak hartu ditu azkenaldian. Sami Naïr pentsalari frantziarrak «Europa europarra» proposatzen du, «solidaritate, hiritartasun eta interes orokorraren» balioak daramatzana.

Ezker eta eskuina ez dira gauza bera, baina European jokaera berdintsua izan dute askotan. Merkatuak izan du lehentasun guztia; eta Europa

liberal eta antisoziala eraiki da, hartara. Europar Batzordeak austerizidioaren politika egin du. Ametsa zena desengainu bihurtu dela dio Sami Naïrrek. Austeritate politikak handitu egin du klase sozialen arteko tartea, orain arte gizarte-kohesioaren sinboloa izan den Kontinente Zaharrean.

Ezkerra lekuz kanpo dago gaurko mundu globalean, eta deseroso sentitzen da. Hori dela eta, desagertzen ari dira haren jarraitzaile eta hautesleak. **8** Kapitalismo neoliberalari aurre egin ezinik, ahulduta ageri zaigu.

Ez dira garai onak sozialdemokraziarentzat; ez du zentzurik galdu, hala ere. Demokraziaren etorkizuna zein izango zen ez zekiela esan zuen Bobbiok. Gauza bera esan genezake sozialdemokraziaren geroaz. Historia aurreikusterik ez dagoen zerbait da.

SUDUPE, Jon. Berría, 2015eko martxoa. Egokitua

1. ariketa. Txertatu testu zatia

OHARRA: Aukeran ematen zaizkizun **testu zatitako bat sobera dago.**

- A. Liberalismo klasikoaren eskubide indibidualak tradizio sozialistaren berdintasun-asmoekin lotu zituen.
- B. Justiziaren eta arrazoiaren printzipioetan finkatutako mundu berri baten ametsak iraun egiten du.
- C. 2008ko finantza-krisiak ezustean harrapatu zuen; eta globalizazioaren ekaitzak jota, noraezean ibili da, diskurtso politiko berririk gabe, etsiak jota.
- D. Liberalek, aldiz, askatasun pertsonala defenditzen zuten eta igualitaristen ideiak kritikatzeko zituzten.
- E. Ongizate Estatua da Europak munduari egin dion ekarpen berezietakoa, eta ez lioke inola ere eredu sozial aurrerazale horri uko egin beharko.
- F. Eta, hain zuzen ere, funtsezko ideia horiek guztiek bultzatu zuten Bobbio faxismoaren eta komunismo dogmatikoaren kontra borrokatzera.
- G. Areago, beraren ustez, liberalismoa eta demokrazia eskuz esku doaz; eta, ondorioz, liberala baino ezin izan liteke sozialismo demokratikoa.
- H. Gainera, pentsalaria nahiko ezkorra zen, aurrerakuntza moralari dagokionez; ez zuen, halere, etsi behar denik uste.
- I. Sozialdemokrazia mota honetan, izaera deliberatiboa duen demokrazia bat irudikatzea proposatzen da.

■ Idatzi dagokion letra ondoko laukietan:

Hutsuneak	1	2	3	4	5	6	7	8
Testu zatiak								

Soberakoa	
-----------	--

OHARRA: Soberako aukera hau ez da jaso behar erantzun-orrian.

2. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderai.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

ZAPABURUAREN FILOSOFIA

Nola dira posible Europa hiperberatsean huts egindako estatuak? Jakina da azken hamarkadetan politika neoliberalak zeru-lurra konkistatu eta mundua zizelkatu dutela. Lanaren prekarizazioa eta erosteko ahalmenaren jaitsiera ekarri zuten lehenbizi. Sosak gutxituz gero, gutxiago erosi. Eskeraren jaitsiera horri soluziobide perfektua eman zitzaion gutxienez bi kolperekin. Bat, low cost unibertsoa, herritar oro bihur zedin kontsumitzaile oparo, zoriotsu eta sistemarekiko adeitsu bezain baketsu. Eta bi, kreditu-orgia miraritsua, zorpetze masiboaren bidez herritar orok –desira oro beharizan bihurtuz– gara zezan nornahi noiznahi nonahi izateko mania postmodernoa, poltsikoan izan bost edo hamabost. Erantsiz horri OCDEko herrialdeek sistema fiskalari progresibotasuna kendu eta ongizate-sistema ziurtatzeko zergak ez, zorra bihurtu zutelako finantziario-bide nagusi: merkatuaren eta oligarkia finantzarioaren esku utzi zen politika nola gizartea modelatzeko ahal faktikoa.

Finean, gainzorpetuz joan ziren gobernuak, familiak eta enpresak. Zorpetzean oinarrituriko sistema ekonomikoak ezinbestean behar du hazkunde ekonomikoa (kredituak eta horien interesak ordaindu ahal izateko), baina ekonomia erreala nekez haziko da zorraren abiadura berean (are gutxiago gero eta garestiagoa den petrolioarekin). Gaurko sistema finantzarioak dirua (zorra) sortzen baitu bertigozko erritmoan: bankuetako aktibo finantzarioak bikoiztu egin ohi dira 10-15 urtean behin. Ezinbestean, gure ekonomietan une jakin bat heltzen da non zirkulatzen ari den diru kopurua (zorra) askoz arinago hazten ari den produktibitatea (ekonomia erreala) baino. Halako sistema finantzarioa duen ekonomiak bere burua suntsitu ohi du ziklikoki. Nazioarteko Diru Funtzaren datuak dira: 1970-2010 urte tartean sortu dira 145 banku-krisi, 208 moneta-kolapso eta 72 zor subiranoko krisi, 187 herrialderi eraginez. 2008an eztanda finantza-sistemaren erdigunean gertatu zen, horixe aldea. Europako bihotzean huts egindako estatuak sortzeraino.

Eztanda finantzarioak shock-egoeran utzi zuen populua eta, Ulrich Beck-ek berriki esan duen moduan, ahalbidetu zuen konbinazio zinez bitxia: «Estatu sozialismoa banku eta aberatsentzat,

neoliberalismoa erdiko klase eta pobreentzat». Aski ezagunak dira konbinazioaren ondorio sozial eta ekonomikoak.

Globalizazioarekin, kapitalak posizioak berreskuratu ditu, datuek erakusten digute ‘ongizate-estatu’ deituriko paktua zein puntutaraino izan den salbuespena (estatu-nazioaren eta merkatu-nazioaren artekoa): 1900-1940 epean, Europako % 10ek pilatzen zuten aberastasunaren % 50 baino gehiago; 1945-1975 epean, Europako % 10ek aberastasunaren % 25 baino gehiago zuten; 1975-2013 epean, Europako % 10ek aberastasunaren % 50 baino gehiago zuen. Progresio bikaina. Nork zioen amaitu zela klase-antagonismoa?

Orain arte antzuak izan dira beldurra lekuz aldatzeko saiakerak. Eta pentsabide kritikoa jarraitzen du bere burua hormaren kontra joz, desesperazioan ez erortzeko saiakerak egin eta galdetu bitartean: nola demontre ez dago erantzun duinagorik? Eskubide-lengoaia hain hedatua den Europa sofistikatuan luzatuz doa gorputz kolpatuen zerrenda: zer dela eta ez dira gehiago hedatzen matxinadaren aldeko baldintza subjektiboak?

R.H. Tawney-ren Zapaburuaren Filosofiak eman lezake argi pixka bat. Tawneyk diosku kapitalismoak beti erabili izan duela estrategia jakin bat altxamendu kolektiboak saihesteko: zenbait norbanakori salbamen indibiduala eskaini. Gainerakoei demostratuko zaie gaitasun indibidualak direla –eta ez injustizia estrukturalak– gizarteko solairu batean ala bestean kokatzen gaituztenak. Zapaburu kapazenek halako batean lortuko dute igel bihurtzea, jausiko zaie buztana eta gorputza sendotuko, miseriaren ur-putzuetatik irtengo dira eta lurra konkistatzen ikasiko. Irtenbide indibidualaren mitoa masiboki gailentzen den lurraldean zimeldu egin ohi dira estrategia kolektiboak, bistan da. Aspaldiko krisi sistemikorik latzenean inoizko bizien dago ekintzailearen ideologia.

Ez da soilik mito bat saldu digutela. Gizarte industrialak guztioi josi digu gerri bueltan aurrekoek amestu ere egingo ez zuten gantz kopurua. Sistemaren onuradun aktibo egin gara. Edo bihurtu gaituzte. Gauzak horrela, gehiengo ez dago logika

kapitalista gainditzearen alde, bere alderdirik zakarrenak leuntzearen alde baizik. Gehienek nahi lukete duela 10 urteko bizi-mailarekin jarraitu, berdin dio horrek balekar planetako Hegoaldearen ustiatzea, ekosistemen birrintzea edota Luziferren erreinaldia.

“Hegemonia ez da soilik politikoa eta ekonomikoa, kulturala da”, esan zigun Antonio Gramsci-k. Sistemak eraiki ditu bere logikarekiko

funtzionalak diren portaerak, desioak eta subjektuak. Horregatik, hain zuzen, ez gaitu *lifting* batek aterako hemendik. Ez gaitu hauteskunde-lehiak aterako. Kontzientziak sakon eraldatu behar dira, beharbada hauteskudeekin batera. Benetako bataila oso tolesdura sakonetan jokutzen ari da. Hortxe zailtasuna, eta hortxe bere aparteko interesa.

ARANBERRI, Ibon. <berria.eus>, 2016ko otsaila. Egokitua.

2. ariketa. Aukeratu erantzuna

9. Zer gertatu da azken urteotan, egilearen ustez?

- a) Neoliberalen politiketek kalitate okerragoko lanak zabaldu dituztela.
- b) Langabezia asko handitu denez, jendeak diru gutxiago daukala.
- c) Aberastasunaren banaketa gero eta desorekatuagoa dela Europako estatuen artean.

10. Nola konpondu zuten kontsumoaren jaitsiera?

- a) Adibidez, beharrezkoak ez ziren gastu guztiak ezinbesteko bihurtuz.
- b) Bankuek dirua erraz emanda eta salgai askoren bertsio merkeak sortuta.
- c) Esaterako, produktu askoren salneurriak jaitsiz, kalitatean eragin gabe.

11. Zer dio egileak OCDEko herrialdeez?

- a) Nahita utzi ziotela oinarriko zerbitzuetan inbertitzeari.
- b) Benetako agintariak banketxe handiak izan zirela.
- c) Progresiboki hasi zirela zergak igotzen.

12. Zer gertatu zen sistema ekonomikoan?

- a) Krisia hasi zela zorra benetako ekonomia baino arinago handitu zelako.
- b) Petrolioaren prezioaren ezusteko igoerak zorra gehiegi handitu zuela.
- c) Ziklo zaharra amaitutzat eman zutela zenbait estatutan.

13. Zer dio egileak kapitalari buruz?

- a) 100 urtean ez duela lortu estatu-nazioa merkatu-nazio bihurtzea.
- b) Ongizate-estatuak kalte egin diola.
- c) Globalizazioari esker aspaldiko indarrak handiena duela.

14. Zer dio artikulugileak orain arteko erantzunen inguruan?

- a) Duinak izan direla, baina bortizki zapalduak.
- b) Beldurretik eta etsipenetik egindakoak izan direla.
- c) Harrigarriki, ez direla izan egoera aldatzeko modukoak.

15. Zer dio Zapaburuaren Filosofiak?

- a) Justiziarik gabeko egiturazko egoerak lehiakortasuna sustatzen duela.
- b) Taldearen estrategiak kalte egiten diola norbanakoari.
- c) Norberaren esku dagoela bizimodu hobea lortzea.

16. Zer nahi dute gehienek, Azkarragaren aburuz?

- a) Gutxika sistema ekonomikoa aldatu.
- b) Krisiaren aurretik izan zuten maila ekonomikoari eutsi.
- c) Kosta ahala kosta gero eta hobeto bizi.

3. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderai.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

EUSKARAREN ETA ZENBAIT HIZKUNTZA GUTXITUREN ARTEKO ITZULPENAK

Hizkuntza menderatu batetik besterako itzulpenak ez dira maiztasun handiz egiten hizkuntzen arteko botere-harremanen indarrak direla medio. Euskal literaturan egon izan dira, ordea, itzulpenaren bidez beste hizkuntza gutxitu batzuetara hurbiltzeko saiakerak; bai haietatik euskarara ekarriz, bai eta kanporatuz ere; eta horietatik izan dira aztertuenak. Hizkuntza nagusiekiko itzulpenaren aldean oso bazterreko hartu-emanak da, baina aldi berean itzulpen horiek erakusten dute egin dela pareko hizkuntzekiko harremanak bilatzeko ahalegina.

Identifikatutako hizkuntzak askotariko estatus eta errealitate soziolinguistikotakoak dira, eta horiek euskararekin izan dituzten hartu-emanak ere hainbat intentsitate eta norabidetakoak izan direla erakutsi dute azterketek. Hasteko, alde nabarmena dago –irizpide geografiko soiletik– Iberiar penintsulako hizkuntzen, Europako eta gainerakoen artean. Euskarak beste hizkuntza gutxituekin dituen hartu-emanen artean sistematikoenak eta ugariak, zalantzarik gabe, gurearen antzeko egoera bizi duten hizkuntzekin gertatzen dira; katalanarekin eta galegoarekin, bereziki. Geografikoki asturierara, aragoiera eta aranera ere gertuko zaizkigun arren, horiekiko harremanek ez dute zerikusirik katalanarekin eta galegoarekin ditugunekin; harremanak askoz ere urriagoak eta berantagoak izan dira. Ezin esan dezakegu gauza bera Frantziako hizkuntza gutxituez, haiekiko harremanak ez baita inondik ere Espainiako estatuko hizkuntza gutxituekiko harremanaren parekoa. Nabarmen ikusten da ofizialtasunik ezak hizkuntza txikien estatusen sekulako eragina duela eta halakoetan literatur sistemak ere ahulagoak izaten direla. Europako gainerako literatura txikiekiko harremanean okzitaniara eta bretoiara dira, azterketa horien arabera, euskararekin trukerik handiena izan dutenak. Urriagoa izan da orain arte Europako gainerako literatura txikiekiko harremanak –galesera, Eskoziako gaelera, Irlandako gaelera, frisiera eta yiddisha–, eta «munduko» izendapen zabalaren baitan utzi ditugun horiekikoak –kirgizeraren eta

kitxuaren kasua–, isolatuak eta oso bakanak izan dira. Oro har, esan daiteke Euskal Herriko errealitate linguistikoen antzeko egoeran sorturiko testuen itzulpenak gailentzen direla.

Hizkuntza txikiak itzulpen-hartzaile izan ohi dira gehienetan, euskararen kasuak ondo erakusten duenez. Azken urteetan kanporantzko joerak indarra hartu duen arren, etxera ekarritakoak gaintitu egiten du kanporatutako literatura. Beste hizkuntza gutxitu batzuekin izandako hartu-emanak aztertzean ere bi norabideetako itzulpenak agertu dira, baina adierazgarria da nola kasu batzuetan euskarak gehiago eman duen hartu baino. Joera hori, itxura guztien arabera, itzulpen-hizkuntza bakoitzak bestearen aldean duen estatusari lotuta ageri da. Esaterako, aranera edo asturierara gertuko zaizkigun arren, haietatik apenas euskaratu izan da ezer; haiek, ordea, zertxobait gehiago hartu dute euskaratik. Euskararena baino egoera gutxituagoan dauden hizkuntzak direnez gero, euskara eredu izan daiteke haienentzat. Beste kasu batzuetan, aldiz, aurkakoa gertatzen da: urrutira joan gabe, katalanetik eta galegotik gehiago ekarri da eman baino. Horrek pentsarazten du hizkuntza konbinazio jakinetan hizkuntza gutxitu bat «hartzaileago» edo «emaileago» izango dela bikote horretako hizkuntzen estatusaren arabera. Badirudi estatus egonkorragoa duena erreferente bilakatzen dela besteentzat, eta emaile bihurtzen dela hartzaile baino. Finean, azterketok erakutsi dute gutxitu-gutxitu harremanetan ere hierarkiak egon badaudela, eta egoera gutxituena bizi duenak bera baino egoera hobean dagoena hartzen duela eredutzat.

Euskarak beste hizkuntza gutxitu batzuekin harremanak izan dituela erakutsi dute azterketek, baina, horretarako, hizkuntza gutxituetako literatur lanek hizkuntza nagusiko sistematik pasatu behar izaten dute maiz, ezinbestean.

Gaztelaniaren presentzia han eta hemen antzeman dugu hizkuntza konbinaziokako azterketetan: txikitik txikirako saltoan zubi-hizkuntza eta tranpolin

modura funtzionatzen du hizkuntza nagusiak. Erdiguneak garrantzia izaten jarraitzen du euskararen eta beste periferia batzuen arteko hartu-emanetan.

Bikoitza da itzulpenak hizkuntza gutxituetan izan dezakeen eragina: arrisku eta mendekotasun adierazgarri ez ezik, eraikitzaile eta indargarri ere izan daiteke. Itzulpenak aldebiko izaten jarraitzen du gutxitu-gutxitu harremanetan: batetik, hartu-eman orekatuagoak botere-harreman asimetricoiei aurre egiteko saiakera gisa uler daitezke. Bestetik, ordea, azpiko mendekotasun eta hierarkiak azalatu egiten dira antzeko estatusa duten hizkuntzen arteko harreman parekideagoetan ere. Halere, hizkuntza txikiek handiekiko hurbiltasuna eta azpiratzen dituzten indar horiek beroriek aldaketarako baliaitu ditzakete. Hizkuntza azpiratuen eta bazterreko

literaturen arteko zubiak hegemoniari emandako erantzuna dira eta, zentzu horretan, nork bere burua aldarrikatzeko balio dezakete.

Amaitzeko, Croninen hitzak geure eginez, desberdintasunetik abiatuta besteekin harremanak izatea txikitasuna partekatu eta «bestetasun» hori ospatzeko modua ere bada, nolabait, hizkuntza eta kultura txikientzat. Euskararen kasuan, ezaugarritzen gaituen gutxitasunak sortzen duen sentsibilitatetik, beste hizkuntza/kultura gutxituetara eta bazterreko literaturetara egindako itzulpenak komunikazioaz haraindiko interes bereziei erantzunez gauzatu izan dira; antzeko egoera bizi dutenak erreferente gisa hartu eta harreman orekatuagoak bilatzeko beharrak bultzatuta.

**UGALDE, Garazi. <www.eizie.eus>
2015eko urria. Egokitua.**

3. ariketa. Aukeratu erantzuna

17. Zertan ahalegindu da euskal literatura?

- a) Itzulpenak erabilia, beste hizkuntza menderatuetako lanak ekartzen.
- b) Egoera bertsuan dauden hizkuntzen artean zubiak eraikitzen.
- c) Hizkuntza nagusiekiko harremanen hegemonia hausten.

18. Zer diote egindako azterketek, egilearen ustez?

- a) Euskarak hurbilen dituen hizkuntzekin izan duela hartu-eman gehien.
- b) Itzulpen guztiak izan direla gurearen antzeko egoeran daudenekin.
- c) Euskarak harreman ugari izan duela hainbat hizkuntza gutxituekin.

19. Zer dio Ugaldek ofizialtasunaz?

- a) Hizkuntzaren literatur sistema susper dezakeela.
- b) Itzulpenen ekoizpena handitzea ekarriko liekeela hizkuntza gutxitu gehienei.
- c) Estatuko hizkuntza txikien arteko muga markatzen duela.

20. Zer dio artikulugileak euskarazko itzulpenen norabideaz?

- a) Ez dagoela beti lotuta beste hizkuntzaren estatusarekin.
- b) Kanporanzko joera barruranzkoari gailentzen ari zaiola.
- c) Lan gehiago itzuli direla euskarara euskaratik baino.

21. Zer dio testuak hizkuntza gutxituen arteko itzulpenen norabideaz?

- a) Hizkuntzaren egoera zenbat eta hobea izan, orduan eta eredugarriagoa dela besteentzat.
- b) Ezin antzeman daitekeela zein faktoreren arabera egongo den alde baterako edo besterako joera.
- c) Hierarkikoa den arren, bitarikoa eta orekatua izaten dela.

22. Zer dio testuak hizkuntza nagusiez?

- a) Garrantzia galtzen dutela hizkuntza gutxituen arteko harremana sendotu ahala.
- b) Hizkuntza txikietako itzulpenetan gero eta gutxiago antzematen dela beren eragina.
- c) Hizkuntza gutxituen arteko itzulpen-harremanetan zubi-lana egin ohi dutela.

23. Zein ondorio dakar itzulpenak hizkuntza gutxituetan?

- a) Harreman orekatuagoak sortzea.
- b) Beren arteko mendekotasuna sustatzea.
- c) Indartsuenek besteak azpiratzea.

24. Zer da besteekin hartu-emanak izatea, Croninen ustez?

- a) Gure txikitasuna ospatu beharraren ondorioa.
- b) Txikitasuna balioesteko era.
- c) Txikien artean erreferente bihurtzeko modua.

25. Zer dio Ugaldek euskarazko testuak bazterreko literaturetara itzultzeaz?

- a) Gutxituekiko sentsibilitatea garatzea dutela helburu.
- b) Komunikatzeaz gain, beste harreman mota bat sortzea bilatzen zutela.
- c) Erreferente bilakatu direla egoera desorekatuagoan dauden hizkuntzentzat.

Oharrak

- Ondoren, **bi ariketa** dituzu. **Biak egin behar dituzu.**
- Oso kontuan hartu behar dituzu **gaia** eta eskatzen zaizun **testu mota**.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten: **ez da zuzenduko irakurri ezin denik.**
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
 - eskatutako guztiari erantzun diozun eta nola: **egokitasuna**.
 - ideiak garbi adierazi dituzun: **koherentzia** eta **kohesioa**.
 - euskara nola erabili duzun: **zuzentasuna** eta **aberastasuna**.

**ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.
 EGIN ARIKETAK HORRETARAKO EMAN ZAIZKIZUN APARTEKO ORRIETAN.**

1. ariketa

Gaia kontuan hartu eta **eskutitza** idatzi behar duzu.

Gutxienez 250 hitz idatzi behar dituzu.

Oharra: **asmatu izenpea** anonimotasuna gordetzeko

GAIA: Zure arloan zuzendari berria duzue eta ez du lehentasunezkoztat jotzen azken sei hilabeteotan lantzen ibili zareten proiektua; aurreko zuzendariak estrategikotzat eta laster batean martxan jarri beharrekotzat zuena.

Zure atalaren izenean, idatzi gutun bat zuzendariari zuen harridura eta ezinegona adierazteko, eta iritzia alda dezan konbentzitzeko.

2. ariketa: Idatzi iritzi-artikulu bat *Administrazioa Euskaraz* aldizkarirako

- Jarraian, egunkari edota aldizkarietan argitaratutako **zenbait testu-aipamen** aurkituko duzu.
Bat aukeratu eta, bertan jasotzen den informazioa oinarri harturik, **iritzi-artikulu**a idatzi behar duzu.
- **Gutxienez 250 hitz** idatzi behar dituzu.
- Testu antolatua eta koherentea egin behar duzu.
 - Iritziak **azaldu** egin behar dituzu.
 - Ideiak **garatu eta lotu** egin behar dituzu.
 - Ezin dituzu hitzez hitz kopiatu lagungarri gisa ematen zaizkizun aipamenetako esaldiak.

TESTU AIPAMENAK**1.****UNIBERTSITATE PUBLIKOAREN ETORKIZUNA**

Nazio txikia da gurea. Natura-baliabideetan urria, gure ekoizkinei balio erantsia ematean dautza gure aberastasuna eta etorkizuna. Horretarako, industria-egitura sendo, indartsu eta arduratsua behar dugu; eta horrek kalitatezko hezkuntza-sistema bat eskatzen du, Europako beste herrialdeen parekoa, gure gaitasun eta trebetasunetan etengabe hazteko aukera emango diguna.

Tamalez, ez diegu igartzen gure arduradun politikoei iritzi horrekin bat datozenik: ez dago unibertsitate publikoaren aldeko apustu argirik. Unibertsitate publikoaren aldeko urteroko inbertsio-datuak ikusita, pentsa dezakegu azpian dagoen asmoa dela ezagutza hori esku pribatuetara bideratzea, pixkanaka.

Ezin ahaztu, ordea, Harvardeko Unibertsitatearen errektore izandako Derek Curtisek adierazitakoa: «Hezkuntza garestia dela uste baduzu, egizu proba ezjakintasunarekin».

UGALDE, Unai. *Berria*, 2017ko iraila. Egokitua

2.**ZORIONAREN FABRIKA**

Independentzia-deklarazio amerikarraren hiru eskubide oinarrizkoak bizitza, askatasuna eta zorionaren bilaketa dira. Eta zoriona esaten denean kapitalismoaren bidezko zoriona ulertu behar da diruak markatzen eta agintzen baitu zer desiratu behar duzun eta noiz zaren benetan zoriontsu.

Kultura edo komunitate batek partaide eta taldekide egiten zaitu, leku jakin bat ematen dizu; kapitalismoak, ordea, ez du holakorik behar. Amerikarren ia erdiak bakarrik jaten du; hirutik bi ez dira auzoko inorekin sozializatzen; eta 50 urtetik gorakoan artean, bakardadean bizi dira asko, % 40.

Baina kapitalismoak ere bere betebeharrak ditu: auzokoengandik deserrotuta bada ere, zoriontsu izatea, plazera izatea bezala, obligazio bihurtzen dizu; lan bat gehiago. Ondorioa? Zorionaren bilaketa esplizituak berak sortuko dizu azkenean antsietatea.

ZULAIKA, Joseba. *Berria*. 2017ko abuztua. Egokitua.

3.

DUIN HILTZEKO ESKUBIDEA

Gizarte gero eta zaharkituagoan, gaixo terminalen dilema sarritan agertzen da: noiz, nork eta nola amaitu bizitza mingarria? Eztabaida handia da mediku, legelari eta politikarien artean; eta, Elizaren indarra tarteko, gai tabua oraindik askorentzat.

Holandak, Suitzak eta Belgikak eutanasia aktiborako aukera dute, baina muga zorrotzekin. Espainian ez da legezkoa, eta gaixo terminalarekin sedazio paliatiboa erabiltzen da: farmakoekin mina arindu eta pazientea lokartuta eduki.

Zer egin linbo batean daudenekin? Ez dira terminalak, baina bizitza "infernu" bilakatu zaie: ohean, ezin mugituta eta minduta. Familia ere ezin ahaztu: sufritzen eta arazo psikologikoekin.

Beren azalean jarri eta eutanasia aktiboaren aukera aztertu beharko genuke, beldurrik gabe.

FERNANDEZ, Maider. Zuzen, 2017ko apirila. Egokitua

4.

BIRTXIOKATZEA DELITU

Espainiako Auzitegi Gorenak hartu du erabakia. Herritar bat urte eta erdiko kartzela-zigorra kondenatu du mezu bat birtxiokatzeagatik, auzitegiaren ustez nahikoa baita «modu batera edo bestera mezura iristea eta hari publizitatea ematea, mezua pertsona kopuru jakin batengana zabaldua».

Auzipetuaren defentsak, ordea, argudiatu du mezua ez zuela akusatuak sortu, aurrez sarean zegoen mezu bat birtxiokatu zuela auzipetuak. Gainera, mezua adierazpen-askatasunaren barruan daudela uste du defentsak. Baina epaileak ez ditu aintzat hartu argudioak.

Orain galdera da, «atsegin dut» emateak zenbat balio du auzitegiaren eskalan? Eta birtxiokatutako mezua Facebook-era igotzeak edo telebistan txio bat erakusteak?

MIKELARENA, Andoni. Argia, 2017ko azaroa. Egokitua

5.

EUROPA, ERREFUXIATUEKIN ZORRETAN

Bi Europa daude errefuxiatuen krisian: ofiziala, motela eta koordinaziorik gabekoa; eta soziala, premiazko arazoari irtenbidea ematen.

Ofizialak 2015ean errefuxiatuak jasotzeko kuota banatu zituen, baina epea amaitu da eta ia herrialde batek ere ez du bete hartutako konpromisoa: Alemaniak eta Frantziak hartu dute errefuxiatu gehien, baina Espainia, esaterako, kuota betetzetik oso urrun geratu da.

Sozialean, berriz, gizartea mobilizatzen ari da, boluntarioen, udal solidarioen eta kanpainen bidez. Hala ere, ezin gutxietsi eskuin muturreko alderdi xenofoboaren indarra, atzerritar gehiago jasotzearen kontrakoa.

Afera honetan, gobernuak azaldu behar dute Europako nortasuna bera dagoela jokoan, eta haiei dagokie erabakiak hartzea.

Argia, 2017ko iraila. Egokitua

6.

GIZARTE EKONOMIA ETA EKINTZAILTZA

Krisiak sorturiko ezegonkortasun-egoeren aurrean, jendarteari, eta batik bat gazteei, ekintzaile izateko eskatzen zaie. Gizarte-ekonomiako esperientziek berezkoa dute izaera ekintzailea. Kooperatibak, lan-elkarteak, gizarteratze-enpresak, enplegu-zentro bereziak..., langileek beren ekimenez abiarazitako edo berreskuratutako esperientziak dira. Nola ekin, horretan datza, ordea, benetako aldea.

Gizarte-ekonomia ekintzailtza mota bat da, eta botere-harremanak berdintzean oinarritzen da; hau da, lanerako eskubidea birbanatzeko helburuz egiten da. Kapitalaren logikatik at, pertsonengan oinarritzen da; eta, hortaz, kapital-arazoak sortzen diren testuinguruetan, ez ditu pertsonak bazterrean uzten.

ETXEZARRETA, Enekoitz. <oves-geeb.com>. 2016/11/30. Egokitua

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua



IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

- **1. ariketa:** txertatu testu zatia.
- **Irakurgaia:** «SOZIALDEMOKRAZIAREN ETORKIZUNA»

Hutsuneak	1.	2.	3.	4.	5.	6.	7.	8.
Testu zatiak	F	D	A	G	B	H	E	C

Soberakoa	I
------------------	---

- **2. ariketa:** aukeratu erantzuna.
- **Irakurgaia:** «ZAPABURUAREN FILOSOFIA»

9.	A	10.	B	11.	B	12.	A	13.	C
14.	C	15.	C	16.	B				

- **3. ariketa:** aukeratu erantzuna.
- **Irakurgaia:** «EUSKARAREN ETA ZENBAIT HIZKUNTZA GUTXITUREN ARTEKO ITZULPENAK»

17.	B	18.	C	19.	A	20.	C	21.	A
22.	C	23.	A	24.	B	25.	B		